

BERTSO BERRIAK

Xabi Paya

2-xabi-xa

INIGO AZKONA



Xabi Paya/ni Birminghamgo Unibertsitateko Euskara eta Euskal Kultura irakaslea izango da/naiz ikasturte honetatik aurrera. Ez du/t Bizkaiko Txapelketan parte hartuko.

I

Unibertsitateko maisua, nolatan?

Lehen ere jardun naiz hamaika gelatan.

Bai, baina sekula ez Birminghamgo mapan...

hangoak hasi nahirik euskaraz kalakan, ezin nituen utzi irakasle faltan.

II

Zerk motibatu zaitu kanpora joatera?

Asmo hau ez da sortu unetik unera: amaitu nuenetik Gasteizen karrera, pasatu nahi izan dut mugako barrera eta azkenik nire ametsa bete da.

III

Zergatik ez zenuen orduan alde egin?

Beste amets bat ere banuen nirekin, bertsolari izan nahi nuen berdin-berdin, eta Euskal Herrian geratu nintzen, fin, bi ametsetako bat behintzat bete zedin.

IV

Aitzakia ote da bertsoa uzteko?

Otaño Argentinan bizi zen ederto, Mañukortaren herri izana da Elko, bertsolariak ez du adinik hasteko, ezta Xabik gogorik ahoa ixteko.

V

Zenbat denborarako zoaz hara gora?

Urte bakarrerako ez noa inora!

Betirako ez zara han geldituko ba?

Nahiz asko ez gustatu tea eta soda, nahia aldatzen bazait, hala izango da.

VI

Ez al zara joango txapelketen erruz?


Bertsotan ez naiz bizi ezinaren damuz: nahiz eta puntuetan batu zenbait minus, aldi batez oholtza bihur bedi campus, bizitzan dena ez da bertsuz eta versus.

VII

Nola bizi dituzu azken txapelketak?

Gogoan ditut lehen aldien ferekak, baina ailegatzean rutinaren bueltak, desagertzean tripa peko tximeletak... errazago egiten dituzu maletak.

DOINUA: "Maisu zer da Ruanda?".



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.